

## Hitzaurrea

*L'ome sabent no té pus avantatge sino que-l  
pech sol menys fets avenir.*

*(Gizon jakitunak ez du beste abantailarik  
ergelak baino gebiagotan igartzea baizik)*

AUSIAS MARCH

Euskal Herriak ez daki nor galdu duen... denborarekin ohar-tuko gara oraingo galeraz... euskararen oroitzarik den arte irau-nen du bere izenak... Era hortako esaldiak zebiltzan euskalari eta euskaltzaleen artean 1987ko urriaren 11. egunean zendu zenetik ondorengoak zehar; euskararen ikerketan langilerik leialena ez ezik jakitunena genuen Koldo Mitxelena, gure herriak hain urri eman dituen zientzilari horietakoa bai genuen.

Hizkuntzazko ikerketak zientifikoki lantzen erakutsi zigun gi-zona joan zaigu. Linguistika alorrean mundu zabalera begira, gaur egun, euskarak eta euskalaritzak ospea eta itzala irabaziak baldin baditu, Koldo Mitxelenari zor dio beste inori baino lehen. Inork uka ezinezkoa zaigu gure hizkuntzari eman dion duintasuna.

Gizon honek ofiziotzat beste gairen bat aukera zezakean, bai-na hartzen zuena hartzen zuelarik, bere logika zentzuzkoaren in-darrak, erudiziorako hain baliagarri den gogozko ahalmena eta horiek orekatzeko gaitasuna, gizon batengan hain erraz ematen ez diren dohainak. Mitxelena ordea, horretarako jaioa zen, izake-razko prestutasuna zuen edozein gai aztertzeke, teknika eta me-todologia ikasiaz gainera, gaiak berekiko gogoetaz egoki garatu eta taxuz edo neurritz burutu ahal izateko. Horregatik nabar-mendu zen kulturadunen artean gailurrik erpinena irabazten. Kul-turadunen artean diot, zeren historiaren lotsarirako, gurean ere, abertzaletasuna neurtzeko aski bai dugu football-ean herriko eki-poek gol asko sartzen jakitearekin.

Baina, ostikadarik gabe, hizkuntzan eta kulturaren gure abertzaletasuna agertzen dugunontzat, zorionez, Mitxelenak bizitzaren aurrez-aurre jarrera hartzean, euskararen ikerketa hautatu zuen, eta horretarako hizkuntzalaritza zientifikoki ikasteari eman zion, behar den jakintzaz horniturik ikerketak burutzeko. Bere eta gure ustez, herri honi nortasun berezia ematen diona euskara denez gero.

Bere lehen etsaiak, Paradisoan haize freskotan mintzatua eta Tubalek guri espreski ekarria zela uste osoan sinesten zuten haie-takoak; bigarren etsaiak, XX. mendeko hizkuntzalaritzaren aurre-rapenek eskaintzen zuten aukeretara errenditu gabe, inongo erre-gela edo araurik gabe, amets hutsezko semantikan murgildurik hain naharo zebiltzanak (edo dabiltzanak); eta, azkenik, euskara idatziaren batasunik nahi ez dutenak, batez ere grafia kontuan, lehendik letrak latinaren bidez jasoak ez bagenitu bezala edo gra-fia kontua konbentzionala ez balitz bezala. Baina, etsaiengandiko zioak langileagora bultzarazten zuten gizona. Ez gizonkiago, zeren arrazoi eta adimenaren zentzuz neurtzekotan nekez aurki geneza gizonagorik.

Baina, maisu onak ikasle onik ere izaten du eta hauen bidez da-torkigu beregandiko mezua zertan zenaz maila guzietara hedatuz. Kristauontzat, gizona bere emaitzaren frutuz ezagutzen bai da. Euskararen maitasunez apologista hutsaren bidea hartzeko zorian zeudenak ere, bere eraginez ikerlan serioak egiten jarri ziren.

Batzutan ez zela pairakor? Egia da inoiz, ergelartean, eroapena galtzen zuela. Bere jakintasunaren erpinetiko ikuspegi hartatik be-gira, mailak berez zemaionetik; baina ez zen egia absolutoen zale, aintzinakoen esanari laket, ez bai zen «liburu bakardun gizona».

Teorien analisisetan baretasunez jokatzeko zekien, bere pentsa-molde landu eta paregabe jantzian oinarrituz. Buru azkarra zuen benetan, berebiziko azkarra, oreka egokian jabetuz erarik arra-zoizkoena eta normalena lortzen zekien ideen egunoroko haize berriei idekirik, berrikerietara erori gabe, guzia logika bidez eho eta eralkiz ikertzen zekien, ogi ona egiteko lehenik oreka ongi prestatuz. Horretarako, bere burua, erudizioz erarik zabal bezain ugarienean jantzi behar izan zuen, ideen oinarritzko edukieraz laster jabetzeko eta bere gogoetak zentzuz eta taxuz garatuz.

Hala ere, aburuetan zuhur. Hortik zetorkion Ausias March-ek gizon jakitunez zioena, idazki honen buruan jarri duguna.

Orain baino lehen agertu genituen bere dohainok «Mitxelena-ren ekarpenez» izenburuz Egan-en (ikus 1982ko alearen 175. orrialdean). Eta laudorio handiagorik jaso zuen Piarres Lafitte euskaltzain zenagandik *Bulletin du Musée Basque* aldizkarian, gero gazteleraz *Boletín de la R.S.V. de los Amigos del País*-en argitaratuko zena, 1965ean. Goresmen haiek ez ziren hilberriei egiten zaizkien ohizkoak, lan handi eta jakitunaren ordainezkoak baizik. Lafitte zenak euskaldun jakitunaren nortasunetik begiratzeko bazuen, ikus dezagun A. Tovar hizkuntzalari erdaldunak zer zion 1983an Mitxelenari Ossian saria eman zitzaioneko hitzetan:

*«...brillante por el conocimiento incomparable de todos los testimonios de la lengua vasca en la literatura antigua y moderna y en la dialectología, con datos no reunidos nunca de la onomástica y de las formas aisladas en los diplomas, y a la vez demuestra un sólido método que pesa y mide con rigor teórico».*

Uka ezinezko dohain-goresmenak. Tovar zenak ongi zekien zer esaten zuen eta, erbestekoagandik lortu zituen laudorioetan, zer ondorengo hitzak baino ederragorik?

*«...Reconocemos y aplaudimos hoy al sabio, pero tenemos que descubrirnos ante lo que, aparte de sus nativas dotes de inteligencia y curiosidad, ha sido motor de su trabajo y ha hecho de él un lingüista vasco de dimensión internacional: un hombre entregado a mantener la consciencia de su pueblo y la lengua que considera esencial siga viviendo en labios de la gente».*

Nahikoa arrazoi direla iduritzen zait Egan-en ale berezi bat omenez eskaintzeko, gizonaren nortasuna erakutsiz. Gainera, Egan 1954an euskara hutsez hasi zenetik bedonen zuzendari ez ezik langile ta euslerik borrokatuena izan da eta hemen argitaratu zituen euskaraz idatzi zuenik gehientsuena.

Egan aldizkariaren egitura zertaz oinarritzen den agertu zuen «Asmo berri» zeritzan atariko batean (ikus Egan, 1954. urteko 24 zenbakian), eta ondoko ibiliaren berri laburra neronek eman nuen beste atariko batean (Egan, 1984. urteko 5-6 zenbakian). Bide luze hori ahaztu ezinezko bihurtzen zaigu Mitxelenaren bitzitan eta ekintzan.

Orain, bere ekintzaren bidez lortu zituen adiskidemin batzurrekin batean bere ikasle eta jarraitzaileak ditugu hemen aitortzen dugunaren lekuko. Hasteko, ale berezi honi<sup>2</sup> bihotz berotasun zerbait eman nahirik ber-beraren lerroak dakartzagu, Ossian-Preis 1983 saria jaso zuenekoak, ondotik Eusebio Erkiaga lagun zaharrek eskaintzen dion olerkia eta Martín Ugaldek aztertuz eta galdetuz lortu zuen biografia laburra. Sarrera gisa ematen dugun sail honi erasten diogu Maixa Goikoetxeak prestatu duen zerrenda, Egan-en euskaraz argitaratu zituen lan guziak zehatz-mehatz bilduz. Guziak diot? Ez da ziur. Mitxelenak, «Adiskide berri» eta «Elizalde» izenordez argitaratu zituenez gainera izengabe ere gai labur asko eman zituen, «Adabakiak» eta «Liburuak» sailetan bereziki, eta horietako batzuk, zalantzaz, jaso gabe utzi diren susmoa dugu. Maixak berak dionez, lanak eta gaiak uste baino gehiago irten zaizkio. Orainarteko bibliografietan bildu gabe zegoenik ere bada zerrenda horretan, bereziki ipui itzuliak Txejov eta Wildegandik; besteak beste, bere pertsonaren jarreraz eta biografiaz hain interesgarriak diren lanak ditugu «Pro domo» (1970) eta «Motivo español» (1977). Baina nabarmenen agertzen zaiguna zera da, euskaraz idatziaren kopurua eta hiritar literaturagintzaren ugaritasuna.

Hizkuntza eta Literatura saila espezialista hautatuek hornitua dator. Horietan, bakoitzak bere ikuspuntutik adierazten du Mitxelena zenaren ekarria eta emaitza. Egileak deituren alfabetaren ordenaz jarriak datoz, aspalditik gure artean filologia gaietan ospetsua eta Mitxelenaren Idazlan Hautatuak (1972) edizio kritiko bezala argitaratu zituen Patxi Altunak gramatika alderdia ikutzen du. Behar bada testu zaharren aldetikoa hobeto zetorkion Bernard Etxepare, Ziburuko Etxeberri eta beste hain bikain aztertu zituenai, baina banaketan horrela hautatua zen, dirdira gutiagoko

lan neketsuagoa leporatu geniolako. Aldiz, bukaeran Euskara batasuna (1969) liburuxka eta gai horretaz hainbeste zor zaionari Koldo Zuazo euskara idatziaren batasunerako ekarriaz jardungo da, berriki doktoradutza gai hortaz egina duenez.

Gotzon Aurrekoetxea Atlasgintzan ari denak, Mitxelenak aspaldi hori egin nahirik urratu zituen bideak eta eman zituen eritziak agertuko ditu. Izan ere, euskararentzat egoki zeritzan alfabeto fonetikoa zelako behar zen begia joa zuen Koldok inor hortan serioski arduratu baino lehenagotik.

Joakin Gorrotxategik alor berezia ikasi zuen Mitxelenaren gidaritzapean, aintzinako euskara latin idatziaren inguruan azaltzen zaiguna eta aintzinako Akitanian harri irarrietan agertzen zaizkigun euskarazko hitz eta izenak, Nafarroako Lergakoarekin Pirineo hegoaldean ere aintzina hartatik euskara ezagutaraziz. Aintzinagoko azterketarik ere egina zuen J. Hoz-ekin batean argitaratu zuen *La inscripción celtibérica de Botarrita* (1974). Mitxelenak aldizkari sakabanatuetan iker eta saiok emanak zituen hainbeste lan bildurik argitaratu zituen, *Lengua e historia* (1985) eta *Palabras y textos* (1987) deritzaientan, beren edukiagatik edozein euskaltzalerentzat hain beharrezko direnak.

Jean Haritschelharrek literatura aztertzailea ikutzen du. Historia general de las literaturas hispánicas (Barcelona, 1958) zeritzanaren V. tomoan Mitxelenak emana, lan haren luzapenez Historia de la literatura vasca (1960) kritika aski zorrotzez agertu zuenaz zerbait esateko zein zen hoberik Bordeleko Unibertsitatean Doctor Honoris Causa (1983) izendatzean harrera eman ziona baino?

Filologiazkoa, Euskal Herriko Unibertsitatean Letren Fakultatearen sortzaile zen Mitxelenak jarri zuen katedran lehenik ikasle eta gero irakasle izatez gainera Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo» agerkarian hain leialki lagundu dion Joseba Lakarraren eskutik dator.

Mitxelenak, fikziozko literaturagintzarako betarik izan ez bazuen ere, bere lanetan irudimenezko ahala erakutsi zuen. Denerata iritsi ezinik, hainbat aldiz erakutsi zuen literaturagintzarako egarria, Anjel Lertxundi «Andu» gure egunotako idazle ospetsua-

ren ikuspegitik datorkigu. Hala ere, behin eta berriz-errepikatuko dugu, literaturgintza ez zela gure Mitxelena zenak landu gabea. Egan dugu horren lekuko. Saio, kritika, itzulpen,... jenero horietarik gehienak aldizkari honetan eman zituen, gurean maizago landu den erlijiozko eta baserri gaietatik urruti, hiritar eta profano girozkoa beste askok baino lehenagotik eta gehiago. Eganetik kanpo euskaraz idatzi duena gure zenbait autoreren liburuei hitzaurreak egitean, omenaldi liburuetan eta Euskaltzaindiko Euskera agerkarian eman du. Guzia biltzen den egunean, euskaraz guti idatzi duen eritzia zabaldu dutenen ahoak itxiko dira. Eta hemen diogunaren erakusgarri, hara hor Amaia Mujika Goñi zinezaleak prestatu diguna, zinema kritikaz Egan-en sail bat bete zuten Koldo Mitxelenaren lanaz.

Era honetara antolatu genuen omenezko alean nahitaezkoa zen onomastikaren alorra ere ikutu beharra. Nori berea ematean, gai horretaz mendiez harandiko Erdi Aroko etxe izenak hain ongi ikertu zituenaren lana Koldok gogoko zuenez eta Bordeleko Unibertsitateko katedratik leku-izenen ikerketaz jarraitzen duen Jean-Baptiste Orpustan iduritu zitzaigun aukerakoena, eraberean bi alderdietako (edo bi Estatu desberdinetako) euskaldunontzat, kulturaz, mugarik ez dela erakusteko. Holakoa bait da hizkuntzaren indarra eta anaitasuna ematen digun beregandiko edukia. Horrenbeste merezi zuen Apellidos vascos (1953) delakoaren egile ez ezik *Hamburgon Léxico vasco y etimología* (1972) argitaratu zuenak.

Norbaiti harrigarria baderitzo ere, linguistika orokorraren alorra beste eskola batetik datorrenari eskaini genion, linguistika jeneratiba alderditik ikasia eta bide horretatik dabilen Pello Salabururi. Bedonek aitortuko ditu: «Mitxelenakin bukatu ziren halabeharrez euskal ikasketen amateurismoak. Hau gertatu zen, nere ustez, 1961ean argitaratu baina urte batzu lehenago aurkeztua zuen tesiarekin: *Fonética Histórica Vasca* (1961eko hura 1977an gehitua birrargaratu zuen) libururekin alegia». Eta, haruntzago joanaz esango digu: «bera zen kanpoan lasai aski aurkez genezakeen bakarra». Euskarari eman zizkion bere bizitzako orduak eta euskararekin ari zen mundu zabaleko hizkuntzalarientzat mailarik zientifikoenean. Teoriaz, *Salaburuk Lenguas y protolenguas* (1963) libu-

ruagatik dionez: «Liburu hau bere garaian itzuli izan balute inglesera, hizkuntzalaritza munduak izango zukeen agian kontu haue-tan teoria mailan ezarri behar ziratekeen aldaketen berri zuzena-go». Gogoangarria zaigu laburki eta zabalkunde gisa eskaini zigun La lengua vasca (1977) deritzan liburu jakingarri hura.

Lexikografiaz ordea, nahitaezkoa genuen gai horretan bere ikasle eta lankide izan zuena, eta Orotariko Euskal Hiztegigintzan zuzendari ordezko, Ibon Sarasola. Baina langintza horrek sortu dizkion eragozpenegatik, azken orduan, neronen lepora hartu be-harra izan dut. M. Agud-ekin 1958an Landuccioren Dictionarium Linguae Cantabricae (1562) argitaratu zuenetik Azkuek bere hiz-tegia egiteko erabili zituen iturriak ikertzeraz arte, Estudio sobre las fuentes del diccionario de Azkue (1970) eta orain, Orotariko Euskal Hiztegia (1987an argitaratu zen lehen liburukia), euskara-ren ikerketaz historia guzian egin den lanik sakonena eta zaba-lena. Lehen liburukia inprimatzen eta bigarrena inprimategirako prestakuntzetan ari zela hil zitzaigun gure maisu haundia, Z le-trara arterainoko guzia ordenadoretan sartuz gero. Lan horren bil-ketarako aburuak eta hautaketarako arauak jarri zituen eta Ibon eta beste zenbait aspaldi ikasle izan zituenen laguntzaz buru-tzeko bideetan ipini.

Hiztegigintzan lankide horietako bat Blanka Urgell dugu, baina hemen Mitxelenak testu zaharrez egin zuena erakutsiko digu. Akitaniako harrietatik XVI. menderartekoaren berri zeha-tzak, bakoitzaren lekukotasunaz gainera bere eritzi jakingarriaz horniturik eman zigun Textos arcaicos vascos (1964) deituko zuen liburu hura. Baina ez zen han gelditu gure gizon bizkorra, geroztik gero ere bere zuzendaritzapeko Urkixo Mintegiko Anua-rio horretan eta Fontes Linguae Vasconum aldizkarian jarraitu zuen testu zaharrak argitaratzen noizbait lehengo liburua gehiga-rriz birrargitaratuko zuen ustez.

G. Aurrekoetxearekin Atlasgintzan ari den Xarles Videgainek dialektologiazko ikuspegia eskaini digu, zeren gai honetan ere zerbait berezi merezi zuen, besteak beste, Sobre el pasado de la lengua vasca (1964) idatzi zuenak.

Erakundeen alderdiko ikuspegia ere beharrezko iduritu zitzai-  
gun, horietatik ekintza elkarlanean eta iraupenezkotzat zue-  
lako, luzarora begira probetxurik gehienekoa. Horregatik, zenbait  
erakunderen sortzaile ere bagenuen eta lehendik zetozten batzuta-  
tan partaide izanik, bere lanetarik asko edo gehiengoa horietan  
edo horien bidez eman zen.

Iñaki Barriola Real Sociedad Bascongada de los Amigos del  
Pais-ko lehendakari ohiak agertzen digu erakunde horretan egin  
zuen, eta Egan euskalduntzea bera ere hor doa, izatez horkoa  
denez. Urkixo Mintegiaren izenean euskaraz zerbait idazteko ez  
dugu inor aurkitu, baina Barriola, Lakarra eta nere oharrok zen-  
bait argi eskaintzera datoz.

Labur baina zehatz ematen ditu euskaltzainburu den Fr. Luis  
Villasantek Euskaltzaindiarekiko harreman, lankidetzeta eta ikerke-  
taren gidaritzeta. E. Knorr arduratuko da Euskal Herriko Unibertsita-  
tatean letren fakultatea sortzeaz eskaini zitzaion burutzaz eta on-  
doko lanez, jubilazioa hartu arte. Urte batetako ikastarotzat zuen  
beste liburu hura: *Comparación y reconstrucción en Linguística*  
(1981). 1985ean, omenez eskaini zitzaion *Symbolae Ludovico Mit-  
xelena septuagenario oblatae*. Baina oraindik, emeritus gisa zer  
laguntza eman zuen hil arteraino.

Zuzenean ardurarik izan ez bazuen ere, zeharka lagundu eta  
gogoz kolaboratu zuen Nafarroako Institución «Principe de Viana»  
erakundea eta horren babespean 1969an sortu zen *Fontes Lin-  
guae Vasconum, studia et documenta*. Ekintza horien inguruan  
izan zuen eraginaren berriak biltzeko lortu dugu *Satrustegigandik  
Post scriptum*.

Bukatzeko, eraskin gisa, lan berezi bat ezarri diogu, Joxema-  
nuel Bujanda Arizmendik, Patxi Altunak prestatu zuen Mitxelena-  
ren *Idazlan Hautatuak* (1972) delakoaren osagarri izan nahi  
duena, hertsia begiraturik, bizitza eta lanez gainera, esaldi, eri-  
tzi, irudimen eta izakera markatzen duten zenbait zertzelada, ar-  
duratsu bildurik. Azken batean ideiak dira eta sorkuntza barnean  
sartzekoak. Bere euskaldun senetikako agiriak, hor-hemen idatzi  
zuenetik bilduak. Ez zuen alperrik esan A. Tovar-ek Ossian saria



eman zitzaionean: «el euskera es parte de él, símbolo de su humanidad misma».

Bera gabe, nekez izango du Egan-ek jarraipenik, berak eta nik hain beharrezko ikusten genuen azpiegiturarik gabe porrot egitera kondenaturik dagoenez. Egia esan, abertzaleok, nolabaiteko esku-bideak hartzeaz, agintarien aldetik beste zerbait espero genuen euskarazko literaturaz hainbeste urtetan aritu den aldizkariaren alde. Orain, bera falta delarik, nekezagoda behar duen laguntza hori lortzea eta, ahalegin honetan berari laguntzarren sartu nintzenez, galerapen horren erantzunik ez dut nahi leporatu.

Lehengora itzuliz, inork uka ezinezkoa zaigula esango nuke jakitun zintzoaren apaltasunean zein lan gaitza burutu zigun. Itzala eman zion hizkuntzari eta ospea Euskal Herriari, honen nortasunean mamitua munduari adieraziz. Etorkizunerako, ez dut dudarik, batzuren lehegailuak baino indar gehiagoko zerbait landu eta eskaini zuela, eta hori da benetako abertzaletasuna. Gaur egun, berak irakatsiari esker, eskola sendoa dugu, ikasle izan zituenak erakusten diguten jarraipena lekuko. Maisuak landu zituen alorren adierazle ditugun hemengo lankideok hala erakusten dute.

Horrez gainera, ziur nago liburuetan idatzirik utzi dituen ikerlanak eurak ere oraindik aztergai direla.

Euskaraz gutiago idatzi zuela? Oroi berak garatzen zituen hizkuntzalaritza tekniko horretan jarraitzeko ez zituela dozenerdi euskaldun bere eskola hedatu arte. Eta urteak igaroaz ere kostako dela bere mailakorik berriz sortzea. Beraz, norentzat eta nork argitara eman zitzazken kondizio horietan? Hau da, euskaraz idatzi bazituen ikerketak, hor geldituko ziren argitara gabe, edo hemen bertan zabalkunderik gabe, betidanik gure artean nabaritu den aje eta atzerapenerako. Euskaraz egitea ez zitzaion ezinezko, baina ez zen praktikoa izango eta oraindik ere noraezean ibiliko ginen. Orain ordea, non ikus, non ikas eta nondik eman urrats, argibiderik badugu; erdera jakiteak ere kalterik egingen ez digunez.

Bere ahalmenen erakusle, hizkuntzalaritza gaian, Donostian udara batetan euskara hutsean eman zuen ikastaroa dugu, Juan Antonio Letamendiak magnetofonoz jasorik mekanografiara transkribatu zuena, gero Mitxelena berak zuzenketak eginez, hala sortu bai zen *Zenbait bitzaldi* (1972) deritzan liburua. Baina hori ere frogatu beharra ote zuen gure idazle askok baino gehiago idatzi zuenak? Idatzi ere, zer eta nola? Euskara modernoa eta hiritarra eskatzen dutenek hor dute benetako altxorra. Ohoregarria izan bada euskaragatik emana, benetan aintzakotzat hartzekoa euskaraz eman duena. Denboraren joanean geroago eta gehiago ohartuko da gure herria gizon berezi honetaz.

*Egan* ale hau<sup>3</sup> arretaz irakurtzen duena ohartuko da inoiz baino sakonago gizonaren zintzotasunez, hizkuntzalariaren jakintasunez; presondegiko egonaldian bere bizitzaz jarrera kementsua hartu zuena: «Neronen zoria zen, neure herriarena».

J.S.M.